# BAÑOLET

Paxkal Irigoyen Etxeberri & Maia Iribarne Olhagarai
Xofaldia produkzioak & Kanaldude

Aurkezpen txostena / Dossier de présentation



## **SINOPSIA** / Synopsis

Luixa eta bere lagunak, Bañoleten haunditzen dira. Herri berezi huntako haurrek 11 urte betetzen dituztelarik, zeremonia garrantzitsu bat prestatzen dute.
Haurtzarotik heldutasunera pasatzeko egun haundia hurbiltzen ari da…

Luixa et sa bande d'ami.e.s grandissent à Bañolet.
Dans ce petit village, lorsque les enfants fêtent leurs 11 ans, une cérémonie spéciale est organisée.
Le grand jour qui marquera le passage de l'enfance vers l'âge adulte approche à grand pas…

## **INTENTZIO NOTA** / Note d'intention

Bañolet, Garazi eskualdeko biztanleekin eraman dugun euskarazko film proiektu partehartzailea da. Eiheralarreko herrian grabatu dugu 2021eko udan, herritarrak aktore jokoan harraraziz. Tokiko ekipa tekniko eta laguntzaile andana batek parte hartu dute ekoizpenean.

Filma huntan, umorea, egoera absurdoak eta poesia nahasten dira. Haurren abenturen bidez, Bañolet herri berria deskubritzen dugu. Fikzioak emaiten dituen aukera zabaletaz baliatuz, errealitatearekin jostatu nahi izan dugu, gure herrietako ohiko ingurumena galdezkatzeko.

Horretararko, kontestu geopolitiko berezi batean eraiki den herri bat asmatu dugu, populu zapalduek berriki berkonkistatu duten lurralde batean kokatuz. Ideia hunek, kuadro bat pausatzen lagundu gaitu, herri baten legeak, egunerokotasuna edota bertako biztaleen arteko harremanak berpentsatu eta iraultzeko.

Bide hortatik, identitatearekiko eta botere harremanekiko gogoeta zabalago bat proposatu nahi dugu. Gizarte antolaketa berriak, erritualak, elgar-kolonizazio harremanak edota haurtzarotik heldu-arorako pausua bezalako gaiak lantzen ditugu.

Hala ere, haurtzaroko begirada oinarri gisa hartu dugu. Haurrak « helduetan » jostatzen diren maneran eraikitzen dira pertsonaia guziak. Haurren gogoetak eta jokoak erreferentetzat hartuz, herriko bizia zeharkatzen dugu: lana, heriotza, beldurrak, familia, laguntasuna…

Musikak leku zentrala du gure proiektuan. Sortu nahi izan dugun unibertsoa urrunago eramaiteko, filmako musika konposatu dugu. Ekintza eta gertakariak, erritmo berezien bidez lotzen dira, Bañoleteko eguneroko giro eroa koregrafiatuz.



(fr)

*Bañolet* est un projet de film en langue basque, mené de façon participative à Garazi. Tourné dans le village de Saint Michel (Eiheralarre), il est entièrement interprétée par des habitant.e.s du coin. Une équipe technique locale et de nombreux.ses bénévoles ont également participé à la production.

En suivant les aventures d'une bande d'enfants, nous découvrons un nouveau village, Bañolet. Nous nous plongeons dans son quotidien et traversons des situations absurdes et poétiques.

Par la fiction, nous avons voulu transformer notre environnement, afin de le questionner. Nous avons décidé d'inventer un nouveau village et de l'ancrer dans un contexte géopolitique spécial: un territoire fraîchement reconquis par des peuples qui ont longtemps été opprimés. Cela nous a permis de poser un cadre pour repenser les codes, les lois ou les relations sociales entre les habitant.e.s.

Le film est une réflexion autour de l'identité et des rapports de force. Nous abordons plusieurs sujets: la transition de l'enfance à l'âge adulte, les nouvelles organisations sociétales, les rituels…

*Bañolet* se construit par le regard des enfants. Les personnages « jouent aux adultes », s'inventent des rôles, se prennent dans leur propre jeu. En suivant les réfléxions et les jeux des enfants, nous traversons le village et découvrons les joies, les peurs ou la folie de celles et ceux qui l'habitent.

Dans notre projet, la musique occupe une place centrale. Voulant nourrir davantage l'univers de Bañolet, nous avons composé la musique du film. Les rythmes résonnent avec les actions des personnages et les événements du village. La musique les conduit et les lie. Ces mouvements dessinent la grande chorégraphie burlesque du quotidien de Bañolet.



## FITXA TEKTNIKOA / Fiche technique

Iraupena / Durée : 52'
Irudia / Image : 1.85
Soinua / Son : 5.1
Herrialdea / Pays : Euskal Herria (Eiheralarre, Donibane Garazi)
Hizkuntza / Langue : Euskara
Azpitituluak / Sous-titres : Frantsesa, Bretoinera, Kortsikarra, eta+ - Français, Breton, Corse, et+
Ekoizpena / Production : Aldudarrak bideo, Xofaldia produkzioak
Ekoizlea(k) / Producteur.ice.s : Loïc Legrand, Xofaldia kolektiboa

## TALDE TEKNIKOA / Equipe technique

Paxkal Irigoyen Etxeberri eta Maia Iribarne Olhagaraiek idatzia eta zuzendua.
Irudia / Image: Beñat Iturriotz Perez
Soinua / Son: Allande Etxeberri
Muntaketa / Montage: Maia Iribarne Olhagarai, Paxkal Irigoyen Etxeberri, Mathieu Gouilliard, Myriam Aycaguer.
Nahasketa / Mixage: Allande Etxeberri
Etalonatzea / Etalonnage: Itziar Leemans
Ekoizpena / Production: Xofaldia Produkzioak, Kanaldude
Banaketa / Distribution: Xofaldia Produkzioak, Kanaldude

## KONTAKTUAK / Contact

Xofaldia Produkzioak: xofaldiaprod@gmail.com
Loïc Legrand, Kanaldude: loic@kanaldude.eus



## **EGILEAK** / Réalisateur.ices

**Paxkal Irigoyen** (1988) musikaria da. Haurtzarotik, musika ikasi eta praktikatu du, eta laborantxako ikasketak burutu ondoan, naturalki berriz musikara itzuli da. Azken urteetan hainbat taldetan parte hartu izan du: 667, Totem, TUD, Holako, Zezenaren Taldea, Bilau, BBAX, Frigo edota bere izenean, taldeka eta bakarka. 2017an, Euskal Herriko Bertsolari Txapelketako sintonia konposatzen du. Bilaka eta Elirale dantza konpainien sorkuntzetan ere musika sortu izan du (Negua (2015), Oa Huetak (2016), Artha (2018). Kontzertu eta ikusgarriez gain, musika tailerrak animatzen segitzen du gaur egun. Sorkuntza artistikoko beste hainbat arlori ere interesatu da: Ikus-entzunezkoetan (« Txetxe ahal hil » (2015), Busti web telebista, Mukuru kolektiboa…), antzerkian (« Lune de miel » (2017), libertimenduak…) edota dantzan (Garaztarrak dantza taldea) proiektuak eramanez. Bere sentsibilitate berezi, irudimen ero eta sormen gaitasun haundiari esker, proiektu artistiko ugari bultzatzen segitzen du. Gaur egun, musikan aritzeaz gain (Frigo, Fifita, Bloñ…) Bañolet proiektua ko-zuzentzen du.

Paxkal Irigoyen (1988) est musicien. Dès son enfance, il apprend et pratique la musique. Suite à ses études agricoles, il se retourne naturellement vers la musique et la création. Il participe à de nombreux projet musicaux: 667, Totem, TUD, Holako, Zezenaren Taldea, Bilau, BBAX, Frigo ou même en solo. En 2017 il compose la bande son de « Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa ». Aussi, il écrit et interprète la musique de plusieurs spectacles de danse des compagnies Bilaka et Elirale (Negua (2015), Oa Huetak (2016), Artha (2018). En dehors des concerts et représentations, il anime aujourd'hui des ateliers de musique pour enfants. Il s'intéresse à d'autres domaines de création artistique et mène différents projets dans l'audio-visuel (« Txetxe ahal hil » (2015), « Busti » web tv, le collectif Mukuru), au théâtre (« Lune de miel » (2017), libertimendua) ou bien dans la danse (Groupe de danse Garaztarrak). Grace à sa sensibilité, son imagination et sa créativité, il continue à créer et à propusler différents projets artistiques. Aujourd'hui, en parallèle de son activité de musicien, il co-réalise le projet Bañolet.



*Argazkia/Photo: Nahia Garat*

**Maia Iribarne Olhagarai** (1995) haurtzarotik musikaren munduan ibiltzen da: biolinean eta kantuz, talde ezberdinak integratzen ditu eta dantza ikusgarrietan parte hartzen du musikari gisa (azkena, Lagunarte Konpainiaren « Animalia », 2019an). Mondragon Unibertsitatean (Aretxabaleta) ikus-entzunezko komunikazioa ikasi ondotik, arte bisualak eta hezkuntza ikastera doa Bartzelonako arte ederretara. Komunikazio proiektu ezberdinetan parte hartzen du ikasketetan zehar (Topatu gazte proiektu komunikatiboa, Busti web telebista, EHZ festibaleko komunikazio taldea). Tailer artistiko desberdinak animatu ditu, musika, ikus-entzunezkoak edota arte plastikoak nahasiz. Dokumentalgintzan berezitu da ondotik, Lussas-eko (Ardèche Images) dokumental eskola integratuz. Gaur egun, musikan segitzen du (Habia, Bloñ), ikus-entzunezko grabaketetan lan egiten du eta Bañolet proiektua ko-zuzentzen du.

Maia Iribarne Olhagarai (1995) se plonge dans le monde de la musique dès son enfance. Violoniste, elle intègre différents groupes de musique et participe à des spectacles de danse en tant que musicienne (dernier en date, « Animalia » Compagnie Lagunarte - 2019). Après avoir étudié la communication audio-visuelle à l'université Mondragon à Aretxabaleta, elle se dirige vers les arts visuels et l'éducation, aux beaux arts de Barcelone. Durant ses études, elle participe à différents projets audio-visuels (« Topatu », « Busti », festival EHZ). Elle anime par la suite des ateliers avec les enfants mêlant musique, cinéma et arts plastiques. Elle se dirige finalement vers le cinéma documentaire en intégrant la formation de réalisation à l'école documentaire de Lussas (Ardèche Images). Aujourd'hui, elle joue de la musique (Habia, Bloñ), travaille sur différents tournages et co-réalise le projet Bañolet.



*Argazkia/Photo: Markotx Iribarne*

XOFALDIA PRODUKZIOAK & KANALDUDE

# BAÑOLET

PAXKAL IRIGOYEN ETXEBERRI & MAIA IRIBARNE OLHAGARAI



ELORRI & AMAIA ELISSALDE-OILLARBURU, HAIZE & UNAI ETXEGARAI-ARAKAMA,
LAILI GASTAMBIDE-LARRONDE, ENEKO GUECAIMBURU-ARRAMBIDE, ELLANDE POIZAT,
JAKES GUECAIMBURU, MAYI GASTAMBIDE

xofaldia [K] KANALDUDE gerediaga DURANGO


XOFALDIA PRODUKZIOAK & KANALDUDE
BAÑOLET
PAXKAL IRIGOYEN ETXEBERRI & MAIA IRIBARNE OLHAGARAI
ELORRI & AMAIA ELISSALDE-OILLARBURU, HAIZE & UNAI ETXEGARAI-ARAKAMA,
LAILI GASTAMBIDE-LARRONDE, ENEKO GUECAIMBURU-ARRAMBIDE, ELLANDE POIZAT,
JAKES GUECAIMBURU, MAYI GASTAMBIDE
xofaldia
KANALDUDE
gerediaga
DURANGO